

DBH 1. mailako guraso agurgarriok:

Ikastolako aldaketa metodologiko prozesuaren barnean, eta kontutan hartuz ohiko argitaletxeek ez zutela gure proiektu propiora egokitutako euskerako material beharizana asetzen, irakasleek egindako material propioaren aldeko apostua egin genuen, material horiek urtero berrikusi eta hobetzen direlarik. Horrekin batera, 2013/2014 ikasturtetik hasita tresna digitalen ezarpen prozesu gradual bat ezarri genuen, irakasleek sortutako materialak digitalizatuz eta "one to one" sistema jarraituz, DBH1tik aurrera ikasle bakoitzak iPad tresna izanez, aparatu honek gure ikaskuntza prozesuan ekartzen zizkigun balio erantsi desberdinak aztertu ondoren. iPad-a gure helburu pedagogikoetarako tresna bat da, koadernoak, txostenak, irakurketa liburuak eta beste baliabide batzuekin batera konbinaturik. DBHko etapan ez dira testu libururik erosi.

Bidaltzen dizuegun **dokumentu hau**, guraso eta ikasleak berak sinatu behar duzuen, **kontratu bat da** eta honen truke emango zaio iPad-a ikasleari irailen. Kontratuak honako ezaugarri hauek ditu:

- *Renting* sisteman, IPAD 11. GEN 128 GB Wifi Plata (kargadore barik).
- iPad-arekin batera, kanon digitala barne, babes handiko zorroa Pro Keys ZAGG teklatuarekin, izena grabatuta, Belkin pantaila-babeslea jarrita eta 30Wko Belkin Power adaptadorea.
- Prezioa: 28,25 €ko 25 kuota, BEZ barik (2 urte eta hile bat).
- Apps-en gastua: iPad-aren kontrolerako Appak materialen zirkularrean zehaztuta; besterik erosi behar izatekotan, aurretiaz ohartuz fakturatuko dira.
- Irakasleek beharrezko materialez hornituko dituzte ikasleak jakintzagaiak burutzeko.
- Ikastola barruan, segurtasuna bermatu nahi dugu: kutxatila gain, talde bakoitzak bere gela propioa izango du, eta iPad-a gordetzeko ikas-mahaiaren kajoian. Kiroldegian, gimnasioan, futbol-zelaian eta igerilekuko aldageletan ere gailu horiek gordetzeko leku egokiak egongo dira, bai takilak edo bai kaiola ezberdinak, giltzarrapoekin hornituta.
- iPad hauek ez dira transferigarriak.
- Gailuaren bizitza-teknikoa eskola erabilerarako lau urtekoa dela aurreikusten da, eta kasu askotan 6 urtekoa ere izaten du.

RENTING KONTRATUA

Istripua izanez gero (erortzea, uraren eragina, etab.), ez dira soilik matxuratutako osagaiak konpontzen, baizik eta gailu osoa aldatu. Lehenbailehen Txesmika, SA-ri komunikatu beharko zaio (94-4446868, Paula), Apple-ek Baimendutako Zerbitzu Teknikoa, ordezkatzeko prozedurari ahalik eta arinen hasiera emateko. Kasu horretan jarraitu beharreko pausoak dira:

- Hondatutako gailua Txesmika, SA-ren lokaletara heltzean, konponketarako aurrekontu bat idatziko da eta *renting*-eko enpresako hondamendietako sailera bidaliko da. Konponketak oniritzia hartzen duenean, gailua 24 orduko epe baten ordezkatzeko da, iPad-ik eskaintzeko modurik baldin badago.
- Lapurreta, istripu edo matxura izan, lehen parte bada, gurasoek ekipoaren balioaren %10a ordainduko dute, gutxienez 50€+BEZa izanik, frankizia gisa. Lapurreta izanez, gero, gurasoek salaketa egin behar dute, aseguruak iPad-a ordezkatu dezan (*renting*). Salaketaren kopia bat Txesmika, S.A.ri eman beharko zaio (gailuaren serie-zenbakia duela). iPad-arekin suertatutako edozein arazoa dela eta, gurasoak zuzenean jarriko dira Txesmika, S.A.rekin kontaktuan, eta ez Lauro Ikastolarekin. Kontu handia izan behar da lapurreta edo galerarekin. Lapurreta edo espoliaziozat hartua izateko, indarra edo biolentzia izan behar da tartean, edo pertsonen mehatxua.
- iPad-a txarto badabil, egoera hobeaz badiago (kolperik gabe), Apple-en garantia prozedurari jarraituko zaio, gailu osoa ordezkatzuz.
- Rentinga amaitutakoan, aseguruak beste bi ikasturtez luzatuko da, eta frankizia bat izango du. 3. urteko frankizia 50 €-koa izango da, eta 4. urtekoa 100 €-koa. 3. eta 4. urteetan, ikasturte bakoitzeko konponketa bakarra egiten da.
- Aseguruak ez du estaltzen teklatuaren haustura.

Bi urteko epea amaitzerakoan, iPad-a ikaslearena izango da.

Ikasleak Laurotik alde egiten badu (Ikastolan baja bada, ikasturte batez atzerrira badoa, etab.), gurasoek kuota guztiak ordaintzeko konpromisoa eta ardura hartuko dute, eta berdin-berdin, epea amaitzean, gailua ikaslearena izango da.

Erabili beti iPad-aren **zorroa**, babestuta egon dadin, eta identifikatuta, bakoitzak dagokion ikaslearen izena eramanago baitu. Ezinbestekoa da honetan zorrotza izatea eta zorroa beti jarrita egotea, gailuaren bizitza teknikoa eta erabilera hoberena lortzeko. Istripurik gertatuz gero, eta iPad-ak ez badu zorroa jarrita, aseguruak ez du estaliko. Azken finean, iPad-aren inguruko ardura ikaslearena da eta, beraz, bere gurasoena. iPad-aren erabilera arduratsua geletan irakatsiko da, baina etxeko hezkuntzarekin ere indartu beharko da.

iPad-a Windows eta Mac-rekin konpatiblea da eta, beraz, ikasleen etxeetan ez da Mac ordenagailurik erosi behar.

Idoia Iruretagoiena, Zuzendari Gerentea